

ZORTZIAK HAMAR GUTXITAKO HILKETA

Egun arrunta da gaur. Iratzargailua jotzen hasi da, goizeko zortziak dira. Ez dut gogorik ohetik altxatzeko, baina egin beharko. Begiak ireki bezain laster, iratzargailua itzali dut.

Nire logela ez da oso handia, baina gustatzen zait. Atetik sartu eta ezkerretara, armairu txuri bat dago. Eskuinean, ohea eta gau-mahaia. Ohearen ondoan, apalategi bat dago, gauza askorekin. Era askotako liburuak ditu, baita argazkiak ere. Lurrean dagoen alfonbrak ematen dio kolorea logelari.

Ohetik poliki altxatzen naiz, bata jantzi, eta sukaldera noa gosaltzera. Esnea eta ogia mermeladarekin. Bukatu dudanean, dutxa bero bat hartu eta janzten hasi naiz. Ondoren etxetik atera eta kotxea hartu dut lanera joateko. Detektibea naiz eta hilketak ikertzen ditut. Autoa aparkalekuan utzita, eraikinera sartzen naiz.

- Egun on Paulo!- esaten diot nire laguntzaileari.
- Egun on Andrea! Kafea hartuko duzu gaur?-
- Bai tematia zarela! Zenbat aldiz esan behar dizut ez dudala kafea gustoko!
- Beno, orduan bihar galdetuko dizut berriro- esaten dit irrifarre batez aurpegian.

Paulo, nire lagunik onena da, baita nire laguntzailea ere. Nahiz eta batzuetan burugogorra izan, oso langile ona eta eskuzabala da. Oso begi politikak ditu. Berdeak, baina urdin pixka batekin, eta ile motz eta marroia. Nahiko altua da.

- Lanean hasiko gara? Edo hemen geldirik pasatuko dugu goiz osoa?- esaten diot nik ere irrifartsu.
- Goazen bada lanera- dio berak.
- Zein da gaurko kasua?-
- Gaurkoa erraza izango dela uste dut. Kontatuko dizut: 24 urteko mutil aberats bat aurkitu dute hilda bere etxean. Nicolas izena zuen, eta zirujau izateko ikasten ari zen. Auzitegiko medikuak dio, zortziak hamar gutxitan hil dutela.
- Nola hil dute?- galdetu diot nik.
- Aizkora batez. Ezkondua zen baina bere emazteak esan du,

beste gizon batekin zegoela, ez baitziren beraien artean oso ongi moldatzen. Gainera, herentzia guztia berak eraman du. A zer zortea! Beno, esan beharra dago, mutil honen gurasoak, 16 urte zituenean hil zirela, baina...a! Eta garbitzaileak harrapatu du. Ez dakit garrantzitsua den, baina tira, nik kontatzen dizut.

- Oso ongi. Goazen ba mutilaren etxera, langileekin hitz egitera. Pentsatzen dut horrelako etxe handia daukan pertsonak, ez duela garbituko ezta sukaldatuko ere.
- Arrazoia duzu, beti bezala. Bost langile ditu denetara. Txoferra, garbitzailea, sukaldaria, lorezaina eta zerbitzaria.
- Kontxo Paulo! Oso ongi informatu zara gaur- Esan diot, eta berehala nere hitzek ilusioa egin diotela ikusten dut.
- Bai Andrea! Ikusten duzun bezala, nahi dudanean oso langile ona naiz- esaten dit barrez.

Nicolasen etxera iritsi bezain laister, langileekin hitz egiten hasi gara, ezin dugu denbora galdu. Lehenik eta behin, bere andrearekin hitz egin dugu, baina bagenekiena errepikatu digu, eta gainera presaka ibili da. Nicolasek utzi dion herentziako diruarekin bidaiatzera doa, bere mutil lagunarekin. Pertsona susmagarrien artean sartu dut berehala, baina ez zait iduritzen bera Nicolasen hiltzailea denik.

Hau eta gero, etxeko langileekin hasi gara hizketan. Lehenik, garbitzailearekin hitz egin dut, edo behintzat saiatu naiz. Berak aurkitu duenez Nicolas, ez da asko hitz egiteko gai izan. Negarren artean, kontatu dit, gaur goizean, bere logela garbitzera joan dela, eta atea ireki duenean, lurrean ikusi duela mutila, odolez estalita. Korrika joan omen da ambulantiari deitzera, baina ez zegoela ezer egitekorik esan dit.

Ondoren, txoferrarengana joan naiz, Mario izena du, baina ez dago hilketan sartua. Bera hamaika eta erdietan sartzen da lanera, eta Nicolas zortzietan aurkitu zuten hilda.

Ez du ezer ikustekorik, baina nire arrazoiak ditut egia esaten duela pentsatzeko. Bere etxea duela aste batzuk erre zenez, hotel batean egiten du lo, eta bertako langileak esan dit, hamaikak laurden

gutxitan ikusi duela ateratzen, eta bertan egon da gau eta goiz osoa. Gainera, Mario, Pedrorrekin, Nicolasen lorezainarekin dago hotelean, alboko logelan, eta bera hamarretan joan omen da lanera. Belarra moztea pentsatzen zuen. Gero, Eduardo Gomez zerbitzariarekin egn naiz. Nahiz eta ez didan ezer garrantzitsurik esan, atentzioa deitu dit. Denbora osoan egon da sakelako erlojua begiratzen, eta eskuarekin oso indartsu eutsi dio. Bat-batean, erlojuan, David jartzen duela ohartu naiz, arraroa benetan. Esan dit, Nicolas jaunarekin, bost urte eramaten dituela lanean, eta orain ez dakiela zer egingo duen. Ez nuela ezer gehiagorik galdetzeko esan diot, eta etxera joaten utzi dut.

Eduardo joan denean, sukaldaria etorri da, Marta. Susto ederra hartu du hilketarekin, gaixoa. Hau, Nicolasen etxean dagoen bigarren urtea dela esan dit. Sukaldean zegoenez, ez zuen mutila asko ezagutzen, baina nork hil duen ez dakiela esan dit. Beraz, joateko esan diot.

Atetik atera eta berehala ikusi dut sakelako erloju bat lurrean, Eduardorena! Baina bera duela 20 minuto joan da. Beraz, bere datuekin beteta dagoen orrian non bizi den begiratu eta gero, autoa hartu, eta beregana abiatu naiz erlojuarekin. Txirrina jo dut, eta harriturik, atea ireki dit. Erlojua erori zaiola esan diot, eta berehala, eskua poltsikoan sartu du, eta hor ez zegoela ikusi du. Barrura pasatzera gonbidatu nau, sofan jarri naiz, eta txokolate beroa ekartzera joan da (ez baitzait kafea gustatzen). Itxoiten ari naizen bitartean, egunkari zahar bat ikusi dut mahai gainean. Hartu eta irakurtzen hasi naiz. Berriak, duela 2 urte gertatutako istripua kontatzen du. David Gomez izeneko mutila hil omen zen kotxean. Momentu bat... David! Momentu horretan, Eduardo txokolatearekin sartu da.

- Berria ikusi duzula pentsatzen dut- esten dit, tristura aurpegian duela.
- Bai. David zure anaia zen, ezta?- galdetu diot nik.

Orduan, istorioa kontatzen hasi da. David, Eduardoren anaia gaztea, Nicolasen laguna zen. Egun batean, 2 lagunak afaltzera atera ziren, eta Nicolasek ardo sobera edan omen zuen. Berak

gidatu zuen bueltan, eta istripua izan zuen. Davis hil zen, baina Nicolas onik atera zen.

Agurrak eman eta gero, autoan sartu, eta Paulori guztia kontatu diot.

- Horrek pertsona susmagarria bihurtzen du Eduardo- Esaten du Paulok.
- Bai. Norekin hitz egin duzu zuk?-galdetzen diot nik, pista in bat aurkituko dugunaren itxaropenaz.
- Berarekin praktikak egiten ari ziren lau pertsonekin. Carlos, golf partidu batean zegoen, Juan bere itsasontziarekin oporretatik bihar bueltatuko da, telefonoz hitz egin dut, noski. Rosa, zaldi lasterketa batean parte hartzen ari zen, eta askeneko, Sara, ospitaleko kafetegian zegoen.
- Kontxo! Denek daukate kartada sendo bat! Orduan, momentuz bi pertsona susmagarri ditugu. Eduardo, Nicolasen zerbitzaria, eta bere emaztea.
- Hori da.
- Eta Julianekin hitz egin duzu?
- Oraindik ez. Baina gaur amets arraro bat izan dut. 30 Urteko mutil bat ikusi dut, ile beltz kizkurrekoa, eta begi berdekoa. A bai! Bata txuri bat zeraman.
- Bueno Paulo, zure amets zoragarria kontatzeaz bukatu duzu ezta? Bada goazen Julianekin hitz egitera- Esaten diot nik.

Kotxea hartu, eta berehala iritsi gara ospitalera. Oso azkar aurkitu dugu Julian.

- Jakingo duzun bezala, Nicolas hil dute- esan diot nik.
- Bai, bai esan didate. Gaixoa, ez dakit nola egin dezakeen norbaitek horrelako zerbait. Eta gainera aizkora batekin!
- Zure datuak idatzita dituen papera begiratu, ohartu naiz, zure amaren abizenak dituzula soilik, zergatik?
- Bai, egia da. Ez nintzen nire aitarekin ongi moldatzen.
- Nintzen?
- Bai, duela 8 urte hil zen bere emakumearekin batera, gaixotasun batez. Hain mediku ona zela esaten zuten denek,

- eta ezin izan zuen bere burua salbatu.
- Bueno, hori da guztia. Milesker- Hau esan eta gero, Paulo eta biok, ospitaletik atera gara. Berehala esan diot, Nicolasen langile, lagun, eta familiakoak ordu erdi barru bilduko ditugula, eta berak, ezer galdetu gabe, esan dizkioten pertsona guztiak deitu ditu banan-banan. Ordu erdi barru, arratsaldeko bostetan, Nicolasen etxean bildu gara denak. Denborarik galdu gabe, hizketan hasi naiz:
 - Arratsaldeon. Dakizuenn bezala, Nicolasen hiltzailea nor den esateko gaude hemen. Bueno, lehenik eta behin, Julian izan da hiltzailea, Nicolasi zirujaua izaten irakatsi behar zion pertsona- Berehala, bi polizia sartu eta atxilotu dute Julian. Autoan sartu eta eramán ondoren, hizketan jarraitu dut.
 - Nicolas, aizkora batez hil zuen. Baina hori, Paulok, auzitegiko medikuak eta hirurok besterik genekien. Julianek esan zidanean, berehala jakin nuen, baina ez zen nahikoa. Berarekin hitz egin eta gero, jakin nuen Julian eta Nicolas anaiak zirela. Julianen aita, duela 8 urte hil zen, Nicolasenarena bezala. Eta orain, gauza bakarra geratzen da, zergatia. Bueno, esan dudán bezala, Julian eta Nicolas anaiak ziren, nahiz eta azkenekoak hori ez jakin. Nicolasen aita, bi emakumerekin egon zen. Batekin, Julian izan zuen, baina berehala, emakumea utzi eta beste batekin ezkondu zen, Nicolasen amarekin. Julian eta bere ama, pobrezian egon ziren bizitza osoan, duela urte batzuk arte. Ama hil zenean, Julian, zirujau bihurtu zen. Bere anaia, Nicolas zela jakin zuenean, amorru handia sentitu zuen. Bere anaiak, txikitatik denetarik izan zuelako. Milesker.
 - Zorionak Andrea! Gaurkoa borbila atera zaizu. Bueno, bihar arte.-esan dit Paulok.
 - Bihar arte Paulo! Zuk ere oso ongi egin duzu lan!